TOLOSAKO UDALA

*IRAGARKIA*

***TOLOSAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2021. URTERAKO DEIALDIA***

*Aipatutako dirulaguntzak elkarrekiko lehiarik gabeko konkurrentzia-araubidean eta Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez emango dira.*

*Ordenantza hori 2017ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onetsi zen eta GAOn argitaratu zen, 130. zenbakian, uztailaren 7an.*

*Halaber, Tolosan etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza berezia 2021eko maiatzaren 27an onartu zen eta 171 zenbakidun GAOn argitaratu zen 2021eko irailaren 7an.*

*XABIER BALERDI TOLOSA jaunak, Tolosako Udaleko Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisaileko Zinegotzi Delegatuak, 2021eko irailaren 16an emandako 2021/1518 Dekretuan, besteak beste, udalerri honetan etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko 2021.urterako deialdia onartu zuen, honakoaren arabera:*

*DEIALDIA*

***1. artikulua. Dirulaguntzen xedea eta diruz lagun daitekeen aldia.***

*Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren errenta zati batean ordaintzen laguntzea honako biztanle-talde hauei: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, bananduak edo*

*ANUNCIO*

***CONVOCATORIA PARA 2021 DE LAS AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA EN EL MUNICIPIO DE TOLOSA***

*Las ayudas referidas se otorgarán en régimen de concurrencia no competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.*

*Dicha Ordenanza fué aprobada en sesión plenaria de 25 de abril de 2017 y publicada en el BOG n.º 130 de fecha 7 de julio de 2017.*

*Asimismo, la ordenanza específica reguladora de las subvenciones para el alquiler de viviendas en el municipio de Tolosa fue aprobada en fecha 27 de mayo de 2021 y publicada el 7 de septiembre de 2021 en el BOG n.º 171.*

*D. XABIER BALERDI TOLOSA, Concejal Delegado de la Subarea Secretaría General, Contratación y Patrimonio del Ayuntamiento de Tolosa, en el Decreto 2021/1518, de 16 de septiembre de 2021, entre otros, aprobó la convocatoria de subvenciones para el alquiler de viviendas en este municipio para el año 2021, de acuerdo con lo siguiente:*

*CONVOCATORIA*

***Artículo 1. Objeto y periodo subvencionable.***

*El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir parcialmente al pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de los siguientes colectivos de la población: jóvenes de*

*dibortziatuak, amaitutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak, baldin eta alokairu-erregimeneko etxebizitza errentan hartuta badaukate edo horretarako konpromisoa hartzen badute, dagokion deialdian eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.*

*entre 18 y 35 años, personas separadas o divorciadas, parejas de hecho extinguidas y familias monomarentales o monoparentales que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler o se comprometan a hacerlo en el plazo de un mes tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de la correspondiente convocatoria.*

*Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentetzat hartuko da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).*

*Podrán ser beneficiarias aquellas personas que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todas y cada una de ellas. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada una de las personas suscribientes del contrato.*

*Deialdi honetan eta berau arautzen duen ordenantzan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza, eta onuradunak gutxienez hamabi hilabetean izandako alokairu-gastua ordaintzeko izango da, eta betiere, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.*

*La subvención se tramitará y otorgará de conformidad con las condiciones establecidas en la presente convocatoria, y en su ordenanza reguladora, y será destinada al pago del alquiler asumido por la persona beneficiaria durante un mínimo de doce meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante este periodo de tiempo.*

*Araudi honetan jasotakorako, alokairuaren edo diruz lagundu daitekeenaren kontzeptutik kanpo geldituko dira garajeei eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.*

*A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.*

*Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, baldin eta alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.*

*Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler un valor fijo de 30 euros por garaje o gastos de comunidad descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.*

*Baztertu egingo dira hilean 700,00 €-ko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten etxebizitzen alokairuak.*

*Quedarán excluidos los alquileres de vivienda que superen la cantidad de 700 euros/mes (incluidos anejos).*

*Beste erakunde batzuen dirulaguntzak.*
*Udal laguntza hauen eskatzaileek ezingo dituzte laguntza hauek eskuratu, baldin eta beste erakunde batzuetatik antzeko laguntza jasotzen*

*Subvención de otras Instituciones.*
*Los solicitantes de las presentes ayudas municipales no podrán obtener las mismas si reciben una ayuda similar de otras instituciones,*

badute, alokairuaren errenta ordaintzeko laguntza moduan.

en concepto de ayuda al arrendamiento.

Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programako laguntza-eskaerak lehentasuna izango du udal-laguntza honen aurretik. Alde horretatik, eskatzaileak nahitaez eta udal-laguntzarekiko lehentasunez izan beharko du tramitatua Jaurlaritzaren laguntza, eta Jaurlaritzaren hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza nahitaez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du; hain zuzen ere, udal laguntzen kudeatzaileak izaera objektiboz zehaztea eskatzaileak ez lituzkeela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko baldintzen oinarriak.

La solicitud de ayudas del programa Gaztelagun del Gobierno Vasco tendrá prioridad sobre la presente ayuda municipal. En este sentido, el solicitante deberá haber tramitado necesariamente y con carácter prioritario a la resolución de la ayuda municipal, la indicada ayuda gubernamental, y sólo en caso de su no otorgamiento tendrá derecho a la concesión de la presente ayuda municipal. La obligatoriedad de la tramitación de la ayuda del Gobierno Vasco quedará exceptuada en el caso que el órgano gestor de la ayuda municipal determine con cárácter objetivo que el solicitante en ningún caso cumpliría con las bases de las ayudas del Gobierno Vasco.

***Betekizunak:***

*Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan ahal izango dira, laguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak:*

*A) 18 eta 35 urte (azken hori barne) bitarteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.*

*B) Bananduak, dibortziatuak (epai judizial irmoarekin) desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.*

***Requisitos:***

*Podrán ser beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes Bases, las personas o unidades convivenciales que, a la fecha de publicación de las respectivas convocatorias en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:*

*A) Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, en el momento de finalización del plazo de presentación de solicitudes.*

*B) Personas separadas, divorciadas (con sentencia judicial en firme) o parejas de hecho extinguidas y familias monomarentales o monoparentales.*

*C) Eskatzaile edo bizikidetza unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.*

*C) Será requisito que ninguna persona solicitante o miembro componente de la unidad convivencial solicitante posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.*

*Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten % 50etik gorako jabetza*

*Sin embargo, podrán solicitar las ayudas las personas propietarias de una vivienda en un*

TOLOSAKO UDALA

*dutenek, etxebizitza hori erabili ezin badute, bananduta edo dibortziatuta daudenean, edo izatezko bikotea iraungitzen denean. Kasu horietan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.*

*D) Eskatzailearen bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiek dirulaguntzaren xede den etxebizitzan erroldatu beharko dute kontratua formalizatu ondoren, eta hori laguntza jaso aurretik egiaztatu beharko dute.*

*Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez den pertsonarik badago etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.*

*E) Errolda baldintza: bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonek Tolosako herrian erroldatua egon izana, gutxienez 3 urteko etenik gabeko antzinatasunarekin, eskaera aurkezten den unean, edo, behintzat, beste momentu batean, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldaturik egon izana eskaera aurkezteko unean.*

*F) Diru-sarrera baldintzak: bizikidetza unitateko diru-sarreren mugak, honako hauek izango dira:*

- *Urteko diru-sarrera gordinak gutxienez 3.000 €-koak izango dira.*
- *Onuradun bakarra baldin bada, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 28.000 €-ko kopurua.*
- *Bi onuradun edo gehiago izanez gero, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 35.000 €-ko kopurua.*

*Banandu, dibortziatuen eta iraungitako izatezko bikoteen kasuan, diru-sarreren zenbatekoa kalkulatzerakoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.*

*porcentaje superior al 50 % y que no dispongan del uso de la misma en caso de separación o divorcio, o extinción de pareja de hecho, supuestos en el que habrá de acompañarse tanto la sentencia judicial como el convenio regulador, de forma que se acredite que el uso de la vivienda ha sido adjudicada al otro cónyuge o ex pareja.*

*D) Todas las personas que forman parte de la unidad convivencial del/de la solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda.*

*Asimismo, en caso de que haya personas no titulares de contrato empadronadas en la vivienda, el/la los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.*

*E) Requisito de empadronamiento en el municipio de Tolosa: que las personas integrantes de la unidad convivencial consten estar empadronadas en el municipio de Tolosa, con una antigüedad mínima de 3 años de forma ininterrumpida en el momento de presentar la solicitud, o haber estado empadronadas en el municipio a lo largo de 5 años de forma ininterrumpida en otro momento.*

*F) Los límites de los ingresos de la unidad convivencial serán los siguientes:*

- *Los ingresos brutos anuales serán como mínimo de 3.000 €.*
- *Si la beneficiaria es una persona, los ingresos brutos anuales no pueden superar el importe de 28.000 €.*
- *Si las personas beneficiarias son dos o más, los ingresos brutos anuales no pueden superar el importe de 35.000 €.*

*En el caso de personas separadas, divorciadas o parejas de hecho extinguidas para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el*

*importe de las cuotas hipotecarias mensuales.*

*G) Diru-sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.*

*G) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido, no podrá superar en su conjunto la cifra de 601,10 euros anuales.*

*H) Bizikidetza unitateko kide guztiek Tolosako Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak egunean izan behar dituzte.*

*H) Todos los miembros de la unidad convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Tolosa.*

*i) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia- loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.*

*I) La persona beneficiaria no tendrá vinculación familiar con el arrendador hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.*

*J) Eskatzaileek Etxebiden izena emanda daudela edo izena emateko eskabidea aurkeztu dutela egiaztatu beharko dute.*

*J) Las personas solicitantes deberán justificar estar inscritas o presentar solicitud de inscripción en Etxebide.*

*Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da Dirulaguntzen 38/2003Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Tolosako Udaleko dirulaguntzak emateko oinarri orokorretan ezarritako baldintzak bete izana.*

*En todo caso, para la consideración de persona beneficiaria, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y en las Bases Generales de Subvenciones de Tolosa.*

***Etxebizitzek bete beharreko baldintzak**.*

*1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Tolosako udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun-lizentzia eta hirigintza-onarpena izan behar ditu.*

*2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez bizigarritasun baldintza hauek bete beharko ditu:*

- *Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturria elektrikoa edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.*
- *Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.*
- *Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelan eta sukaldean.*

***Requisitos que deberán cumplir las viviendas.***

*1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Tolosa, y debe contar con la correspondiente licencia de habitabilidad y reconocimiento urbanístico.*

*2. En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:*

- *Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.*
- *Cuarto de baño con ducha o bañera.*
- *Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de*

- *Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.*
- *Iturriko ura izatea.*
- *Saneamendua sare orokorrera lotuta.*
- *Kalerako aireztatzea.*
- *Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat.*

***Baztertzeak.***
*Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:*

*a) Ondorengo etxebizitzak:*

*a) Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.*

*b) Berrakuratuak.*

*c) Logelen alokairuak (logela eskubidea).*

*d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.*

*e) Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.*

*b) Alokairu errentek gehienez 700,00 €-koak (eranskinak barne) izan beharko dute.*

*c) Ez da onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.*

*d) Euren izaera edo helburua kontuan izanik, beste udal sail edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak (EPO, Gaztelagun, Etxebizitza eskubide subjektiboa, eta abar).*

***2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.***
*Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, 40.000 eurokoa izango da, eta hori 2021. urterako Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honetatik egingo*

*baño y cocina.*

- *Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.*
- *Disponer de agua corriente.*
- *Saneamiento con vertido a la red general.*
- *Ventilación a la calle.*
- *Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar.*

***Exclusiones.***
*No serán beneficiarias de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:*

*a) Las siguientes viviendas:*

*a) Las viviendas de protección oficial de promoción pública.*

*b)Los subarriendos.*

*c) Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).*

*d) Los locales usados como vivienda.*

*e) Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.*

*b) Las rentas por alquiler serán como máximo de 700,00 € (incluidos anejos).*

*c) No se admiten contratos de duración inferiores a 1 año.*

*d) Aquellos/as que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos. (PCV, Gaztelagun, Derecho subjetivo de vivienda, etc).*

***Artículo 2. Partida y dotación presupuestaria.***
*La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 40.000 euros, correspondiente a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de*

*da:*
*0600.480.01.152.40 zenbakidun «Alokairurako dirulaguntzak» partida.*

*Tolosa para el año 2021:*
*Partida de «Subvenciones para alquiler »: 0600.480.01.152.40*

***3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak, eta eskaerak aurkezteko epea:***
*Eskaerak aurkezteko, Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan (UDATE) edo haren web orrian, dirulaguntza programaren barruan, eskura daitekeen eskaera-eredua erabili behar da.*

***Artículo 3. Documentación y plazo para la presentación de solicitudes.***
*Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se encuentra en las dependencias del Servicio de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento (UDATE) y en su página web, dentro del programa de ayudas.*

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**
*Eskaerarekin batera, etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarrietako 6.1. artikuluan zerrendatutako agiriak aurkeztu beharko dira.*

**Documentación a presentar:**
*Junto a la solicitud, deberá presentarse la documentación establecida en el artículo 6.1. de las bases específicas para la concesión de ayudas al alquiler.*

*Orokorrean, eskaera guztiek:*
*1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.*

*2. Bizikidetza-unitatea osatzen duten kideen zerrenda, Udalak egiazta dezan Biztanleen Udal Erroldan.*

*3. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, kontratua dagoeneko indarrean badago eta kontuan izanda 12 hilabeteko iraupena izan beharko duela gutxienez; edo, bestela, kontratua hilabeteko epean sinatzeko konpromisoa, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatuta.*

*4. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 30 egun lehenagokoa.*

*Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:*
- *Herentzia kasuan, herentziaren*

*En general, para todos los casos:*
*1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.*

*2. Declaración de miembros que componen la unidad convivencial, a fin de que el Ayuntamiento realice la comprobación oportuna en el Padrón Municipal de Habitantes.*

*3. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente, que no podrá tener una duración inferior a 12 meses, o en su caso, compromiso de suscribir dicho contrato en el plazo de un mes tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.*

*4. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 30 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.*

*Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:*
- *En caso de herencia, aceptación de*

*onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.*

- *Dohaintza-kasuan, dohaintza- eskritura.*
- *Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.*

*5. Bizikidetza unitateko kide guztien diru-sarreren egiaztagiriak:*

*A)PFEZ aitorpena egin bada:*

- *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Aitorpena, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*
- *Gainera, zergapekoak ez diren prestazioak jasotzen badira, prestazio horien ziurtagiria, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*

*B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu:*

- *Dagokion ekitaldiaren PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*
- *Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*
- *10T Ziurtagiria (PFEZren atxikipenengatiko ziurtagiri ofiziala)*
- *Pentsiodunen edo bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Zerbitzuetako laguntzak barne), laguntza horien ziurtagiria, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*

*Diru-sarrerak kalkulatzeko, kontuan hartu beharreko zerga-epealdia honako hau izango da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitu ondoren, dagokion deialdia GAOn argitaratu aurreko zergaldia.*

*6. Etxebiden inskribatzea, inskribatuta edo*

*herencia y escritura de partición.*

- *En caso de donación, escritura de donación.*
- *En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.*

*5. Para acreditar el cumplimiento con los límites de ingresos:*

*A) Si se ha realizado la declaración de la renta:*

- *Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*
- *Certificado de prestaciones no contributivas (si las tuviera), en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*

*B) A quien no tenga la obligación de realizar la declaración de la renta:*

- *Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración de la renta del correspondiente ejercicio fiscal, en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*
- *Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social, en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*
- *Certificado 10T (certificado oficial por retenciones del IRPF).*
- *En el caso de Pensionistas o personas perceptoras de becas, prestación o subsidio, (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas, en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*

*A los efectos del cómputo de los ingresos se tendrá en cuenta el periodo impositivo que, vencido el plazo de la presentación de la declaración del impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la fecha de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOG.*

*6. Inscripción en Etxebide, en caso de no estar*

*salbuetsita ez badago.*

*inscrito ni exento.*

*7. Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:*

- *Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme- alabengatiko mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.*
- *Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.*

*7. En el caso de solicitantes separados/as o divorciados/as:*

- *Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos/as. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.*
- *Justificante de pago del Importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.*

*8. Administrazioarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*

*8. Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Administración y de la Seguridad Social, en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*

*9. Erantzukizunpeko aitorpena, beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziz) badaudela edo/eta beste erakundeetan dirulaguntza eskatu dutela adierazten duena.*

- *Lanbidek igorritako ziurtagiriak, non zehazten diren Oinarrizko Errenta (OE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) onuraduna den hala ez, aurka egiteko eskubidea baliatu badu.*
- *Hala badagokio, onuradunak Tolosako gizarte larrialdietako dirulaguntza eskatu duela adierazten duen aitorpena.*

*9. Declaración responsable en el que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos (especificando la cuantía) y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones.*

- *Certificados emitidos por Lanbide en los que se indique si es beneficiario/a o no de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y Prestación Complementaria de Vivienda (PCV), en caso de que se haya ejercido el derecho de oposición.*
- *En su caso, declaración donde se indique que el beneficiario/a ha solicitado ayudas de emergencia social en el Ayuntamiento de Tolosa.*

*10. Orokorrean, edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeratan ez dagoela eta oinarri hauen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitorpena.*

*10. Declaración responsable en el que se haga constar que la persona solicitante no está incursa en ninguna circunstancia que le impida recibir subvenciones con carácter general y particularmente, que cumple los requisitos establecidos en los artículos 2.º y 3.º de estas bases.*

*11. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.*

*11. Cualquier otra documentación que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.*

*Arazo teknikoak direla-eta kontsulta horiek ezin badira egin elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, interesdunak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela*

*En caso de que, debido a problemas técnicos, no puedan efectuarse dichas consultas a través del nodo de interoperabilidad, las personas interesadas deberán aportar los documentos*

*egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.*

*acreditativos del cumplimiento de los requisitos establecidos en esta ordenanza.*

***Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.***
*39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/ 2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatuko ditu bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatzeko behar dituen datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, diru-sarreren egiaztatzea, bizitza laborala eta beste batzuk.*

***Consulta de documentos e interoperabilidad.***
*De acuerdo con el artículo 28 de la Ley 39/2015, el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 y el artículo 14 de la Ley 38/2003, el Ayuntamiento de Tolosa consultará directamente en las bases de datos del mismo Ayuntamiento y, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE en Hacienda Foral de Gipuzkoa y en la TGSS, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones y requisitos para acceder a la ayuda, y en particular los siguientes datos: estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias en la Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social, acreditación de ingresos, vida laboral y otros.*

***Eskaerak aurkezteko epea eta forma:***
*Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitartaratu eta biharamunetik hasita hogeita hamar lan eguneko epean aurkeztu behar dira eskaerak.*

*Honela aurkeztuko dira:*
- *Presentzialki, Udalaren Erregistro Orokorrean (UDATEn) .*
- *Tolosako Udalaren erregistro telematikoaren bidez, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoen bidez.*

*Hauez gainera, beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:*
*a) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen*

***Plazo y forma de presentación de solicitudes:***
*Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de treinta días hábiles desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOG.*

*Se presentarán de la siguiente manera:*
- *Presencialmente en el Registro General del Ayuntamiento (UDATE).*
- *Por medio de registro telemático del Ayuntamiento de Tolosa, o por medio del resto de registros electrónicos establecidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de la Administración Pública.*

*Asimismo, también podrán presentarse de la siguiente forma:*
*a) En las oficinas de Correos, en la forma que*

*den moduan.*

*b) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.*

*c) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.*

*d) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.*

*reglamentariamente se establezca*

*b) En las delegaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero*

*c) En las oficinas de asistencia en materia de registros.*

*d) En cualquier otro sitio que establezcan las disposiciones vigentes.*

***Dirulaguntzen instrukzio eta ebazpenerako organo eskumendunak:***

*Tolosako Udaleko Etxebizitza Departamentuari dagozkio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Bere partetik, Udal honetako Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailen Zinegotzi Delegatua izango da prozedura hau ebazteko organo eskuduna.*

***Órganos competentes para la instrucción y resolución de las ayudas:***

*Corresponderá al Departamento de Vivienda del Ayuntamiento de Tolosa la realización de las labores de instrucción de las ayudas previstas en la presente convocatoria. Por su parte, el órgano competente de resolver el procedimiento será el Concejal Delegado de las Subareas de Secretaría General, Contratación y Patrimonio éste Ayuntamiento.*

